

Hominidoen (*homo* eta *mulier*) fakultate mentalak eta produktuak Euskal Herrian

Jokin Apalategi Begiristain
Psikologia Sozialeko ohorezko irakaslea (UPV-EHU),
Uztaro aldizkariaren lehenengo 100 zenbakietako zuzendaria

Gure egungo gogoetan unibertsoa dugu azken zola. Mundu osoa, existitzen den oro, alegia. Hala ere, hori guztia ezagutzetik arras urrun gaudenez «zientzia» arloan, gaurok gure gogoetan Euskal Herriko hominidoen prehistoriaz dakiguna gogoratu kritikoki adierazten saiatzea dugu helburu. Euskal Herrian bizi izandako espezie hominidoen arteko harremanez XX. mendean adierazi izan zaigunaz arituko gara, Ataungo herrira so. Horretarako, hominidoen arteko harremanez adieraziak izan diren errepresentazio sozialak erabiliko ditugu. Hasteko, etnografoen lana, ondotik etnologoetara igaroaz lehenek jasotako ahozko produktuak, arte plastikozkoak eta idatzizkoak izan ditugu esku artean. Eta lan hau burutzeko antropologoetara heltzen gara. Gainera, gaur egun lekuan lekuko zientzietan ezinbestekoak diren soziologoak, psikologoak eta historiagileak ere presente edukiko ditugu eginkizun honetan.

GAKO-HITZAK: Hominidoak · Irudikapenak · Kontzeptuak · Kontakizun prehistorikoak · Ahozko herri-produktuak · Jentilak · Kristauak.

Mental faculties (*homo* and *mulier*) and products of the hominids in the Basque Country

In our present-day thoughts the universe is the horizon, namely, the whole world, everything in existence. Since we stand very far from knowing all of it according to the domain of «science», we intend to express critically our knowledge on the hominids living in the prehistory of the Basque Country. The paper discusses the views transmitted during the 20th century on the relations held by the hominid species inhabiting the area, with a focus in the municipality of Ataun. For the purpose, we study the social representations conveyed about the relations the hominids had among them. First of all, we address the work carried out by ethnographers, next moving on to the ethnologic approach on oral, plastic art and written production; the study concludes with a view to the work conducted by anthropologists. Sociologists, psychologists and historians are also considered in this pursuit.

KEY WORDS: PHominidae · Representations · Concepts · Prehistoric narratives · Oral folklore · Pagan giants · Christians.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.119.2021.9>

Jasotze-data: 2020-08-24 Onartze-data: 2021-01-19

0. Hipotesia eta arrazoinamendua

Hitzaldi honetan garatuko den hipotesi nagusia da hominidoen irudikapen-ahal kolektiboak ez daukala mugarik, izatearena salbu¹. Baina, zertan oinarritzen dut hominidoen irudikapen kolektibo mugagabearen hipotesia?

Hona hemen arrazoinamendua. Izaki humanoak irudikapen-ahal kolektiboaren mugagabetasun-ideia bereganatzen duenean, lurreko egunerokoan aurkitzen duen banako historikoaren ideia eta proiektu mugatua gaindituz, hominidoen generoaren ardatzari lotzen zaio. Alegia, gizabanakoa den bezalakoa dela ohartzen hasten denean, kontrajarria dirudien fenomeno bat abian jartzen da: bere amets propioen bilakaerari dagokionez dauzkan mugatasunez jabetzen doan une berean, kide den giza generoari dagokionez azken horrek dauzkan aukera-ibilbideak aurremugarik gabeak direla ohartzera igarotzen da, hots, beti ibiltatea daukala, eta hori humanoek daukaten irudikapen-ahal kolektiboaren mugagabetasunari esker dela, zeren nahikunde eta gauzatzeen orduan hominidoen ahalbideak ez baitira inoiz ixten edo amaitzen. Nahiz eta hominidoen alde subjektibo eta oharkabea atzemateko aukeren orduan irudikapenaren egokiera planteatzea bera ere gizarte-zientzietan ezbaian egon, Platonek defendatu zuenez, mitoaren hizkuntza bitartekari erabiliaz posible litzateke egia frogaezinetara ailegatzea. Horrela, bada, tradiziozko beste hainbat genero narratibo bezala, mitoa bera ere, sorreran, ahozkotasan-jatorriko testu bat da, zeinaren zehaztasunak transmisioetan zehar aldatzen baitira, eta, ondorioz, bertsio desberdinak edukitzera hel gaitezke. Gainera, idazkera ezagutzen duten gizarteetan mitoa berrelaborazio literarioen objektu bilakatzean, mitoaren bertsio eta aldaeren arkuak hedatzen ahal da.

Gaur da eguna, zeinean mitoa bilakaera zientifiko anitzen objektu bihurtu den. Nik neuk nire aldetik uste dut mito guztiak ez direla «lehen» denbora bati buruz ari, sorreraz gero gertatutako jazoera zenbait ere abordatzen ahal dezaketela, hots, hominidoentzat eragin dituzten aldaketen garrantziarengatik, adibidez.

Gaston Bachelard izan zen irudikapen-teoriaren oinarriak bilakarazi zituen, eta horrekin XX. mendeko pentsamendu filosofikoaren printzipioak irauli zituen. Nola? Irudikapena, psikismoaren lehen instantzia bezala definituz eta kontzeptuak bigarren une batean bakarrik eraikitzeak direla kontsideratuz. Pentsamendu honi jarraikiz onartu behar duguna zera da, hominidoak zerbait pentsatu aitzin... irudikatu egiten duela. Irudikapena, orduan, irudien sortze- eta deformazio-prozesu bat da. Irudikapenaren teorikoen zat, bada, izaki humanoa ondorioz animalia sinbolikoa da, hasteko, eta irudikapena bera, adimen humanoaren erdigune bihurtzen da.

Niri dagokidanez, zera gehituko nuke, oroitarazteko bezala ahanzteko, hominidoen modu aniztetako arrazoiak eman daitezkeela. Are, termino hauetan arazoa planteatzea bera ere amarrutsu izan daitekeela, zeren prozesu ohartu bat baitaramate. Gertatzen dena zera da, ideia eta portaera batzuk igaroaren lehen unetik gaurdainokoa presente egon direla, eta beste batzuk, aldiz, ez. Baita

1. Artikulu hau ikastaroaren amaiera-hitzaldi gisa eskaini zen, UEUK antolatutako ondoko ikastaroaren barruan: *Euskal ahozkotasuna eta irudimena: ondarea, sormena eta transmisioa* (Eibar, 2020-07-15). Hemen eskaintzen dena hitzaldi hura bera da, egokitzen batzuk eginda, artikulu gisa irakurria izateko.

ere esan dezakegu, horietariko batzuk ohartuki gogoratzen ditugula, eta beste batzuk, aldiz, gura izan gabe, eta horietariko batzuek interes sozial eta politikoak daramatzatela, eta beste batzuk, aldiz, interes horien aurka doazela. Gogoratzen duguna gogoratzen ez dugunarekin konparatzean, guztiaz jakitun izatea da arazoa. Eta hori ezinezkoa denez, jakintsu guztiek dauzkaten datuen, teorien eta jarrera pertsonalen partzialitateaz oharturik, akordio batera heldu beharko lukete. Hau da daukagun erronka, eta, baita ere, ikerketa sozialak esfortzu kolektibo eta kooperatiboa izan beharko lukeela bakarkako bururatze guztien aurretik.

1. Aplikaziorako hautatu dugun produktua: Ataun deitzen da

1.1. Ataun erakundearen historia

Ataungo herria, aro berriko «historian» ibilbide laburra duen herria dela azpimarratuko dugu hasteko.

Gipuzkoa Gaztelako erreinuan sartu baino lehen, 1200. urtean, Ataun Nafarroako errege-erreginen jurisdikziopean zegoen. Baina, XV. mendean Gaztelan zehar izan zen krisi sozioekonomikoa Ataunek ere pairatu behar izan zuen.

1399an Ataungo Unibertsitateak Ordiziaren barruan auzotasun-gutuna lortu zuen Zaldibia, Gaintza, Itsasondo, Legorreta, Alzaga, Arama eta Lazkaorekin batera.

XV. mendean, egonkortasuna zabaldu zen eta Ataunek aukera izan zuen maila sozioekonomikoan garatzeko. Lazkaoko Jaunarekin izandako lehiek jarraitu zuten XVI. mendean.

XVII. mendean, Ataunek kontzeju irekian erabaki zuen Ordiziako jurisdikziotik askatzea eta bere ordezkariak Gortera joan ziren Filipe III.a erregearengandik «Villazgo» [hiribilduen] pribilegioa lortzeko. 1615ean eskuratu zuen Ataunek herri-izaera («villa» [hiribildu] titulua). 1616koak dira lehenengo ordenantzak. Gordetzen diren lehenengo aktak 1612koak dira.

XVIII. eta XIX. mendeetan, Ataungo bizitza gerrek eta borroka belikoek baldintzatu zuten: Konbentzio Gerra (1794), Independentzia Gerra (1808-1813) eta Karlistadak (1833-1876). Gaur egun, Ataungo herriak 1.500 biztanle ditu, eta bere ekonomian azpimarratu behar dira lehen sektorea (abeltzaintza, nekazaritza eta mendiko aprobetxamendua) eta garatzen ari den industria.

1.2. Zertzelada gehiago Ataungo historiaz

Elizaren agerpena Ataunen IX. mendekoa dela «esan digute»² —nik gehiegizkoa baderitotz ere—. Izan ere, XV. eta XVI. mendeetan bakarrik altxatzen hasten da San Martin de Tours elizaren gaur egungo tenplua (Arin, 1964). Garbi geldi dadila, bada, XV. eta XVI. mendeak arte ez dagoela erabat finkatuta eliza-tenplurik Ataunen. Jaun eta jabe den Lazkaoko Markesaren Etxeak zera dio XVI. mendean: «No haber podido poner cómodamente el escudo de armas por estar la iglesia de tabla y madera». Beste bi parrokiak, berriz, askozaz ere berriagoak dira: San Gregorio 1795ean «la

² *Eusko-Jakintza*, 1951, V. liburukia.

villa adelantó a la fábrica de la iglesia 20.600 reales para las obras de la casa vicarial de San Gregorio y para la iglesia del mismo barrio. Habiendo obtenido licencia del obispado de Pamplona para entregar a la villa la plata sobrante de su parroquia, el mayordomo de la parroquia de San Martín entregó una custodia, una cruz, seis candelabros, dos pares de vinajeras con sus platillos y campanilla, un incensario y naveta, dos lámparas y un copón que habiendo llevado a la villa de Bilbao los vendió en 20.425 reales» (Arin, 1964: 18). Orobat Aiako auzokoa: «La segunda parroquia creada en virtud del Plan Beneficial fue la de la Visitación de Nuestra Señora a Santa Isabel en el barrio llamado Aya... El edificio de la iglesia era deficiente, sólo tenía 54 pies de largo en su interior y 24 de ancho, por lo que a la entrada del siglo XX el vecindario construyó otra de nueva planta en la huerta de la casa vicarial, haciendo todo el trabajo de carreo de materiales» (*Ibidem*).

Apez ataundarrak, beren aldetik, XVI. mendean agertzen hasten dira, espero zitekeen moduan, San Martingo elizaren inguruan, hasieran: «Durante este siglo desempeñan el cargo de vicario de la parroquia de San Martín D. Domingo de Arín, D. Domingo de Barandiarán, D. Bernardino de Arça y los interinos D. Miguel de Altuna, D. Juan de Ibanes y D. Pedro de Sagastiberria» (Arin, 1964: 33). Hala ere, Ataungo klero eta erlijiosoen ondoko bilakaerari dagozkion estatistikak harrigarriak dira (Arin, 1964: 287). Ataundarrek, inon gutxitan bezala, Elizaren erakundea gidatzen hartzen dutela konfirmatzen duten estatistikak dauzkagu gerostiko historian:³ klero sekularra: 135; klero erregularra: 73; klausurako erlijiosoak: 35; kongregazioetako apezak: 91; eta serorak: 42.

Hala ere, beste kultura-alor batzuk ez dira ahanzi behar, fenomeno hau argitzeko unean. Horretarako, gai honentzat osagarri diren beste zientzia batzuk kontuan hartu behar dira. Hala eta guztiz, behin ere informazio osora ez gara helduko, zeren, J. Urkiza Txakartegik *Elizaren Historia Euskal Herrian* (Markina, 1995) lanaren 21. orrialdean dioen bezala: «Osagarri diren beste zientzia batzuri dagokienez ere, mugak ezarri behar nahi eta nahiez bibliografia honetan. Esate baterako, euskal arte erlijiosoaz, arkeologiak, etnografiak eta prehistoriak egindako lanetan. Gauza osoa izatera heldu ez arren, arte gaiezko bibliografia ugaria biltzen da; baita arkeologia eta beste zientzia batzuren ikuspegiz egindako lanez ere, baina bibliografia hauek ez dira hain osoak».

2. Ataun, kontakizun prehistorikoen arloan, XX. mendean hasten da erreferente izaten

Azterketa prehistorikoen adibidetzat, Ataungo «Jentilei» buruzko lau kontakizun aipatuko ditugu.

Noiztik hasi ziren jasotzen eta argitaratzen Ataungo Jentilei buruzko kontakizunak? Don Joxemielek honako hau dio: «Kristauegia baino lehenago, Ataunen bizi izan ziran lagunen berriak 1916. urtean hasi ginan ikasten»⁴.

3. «El censo de la población de Ataun en la primera mitad del siglo XX ha sido de 2.377 habitantes y de ello resulta que en la villa de cada 17 personas se ha consagrado una a la vida religiosa», azpimarratzen du Don «Joan Txikik» (Arin, 1964: 288).

4. Ikus «Ataunen Jentilak» in *Nondik?*, 13 (1983), 24.-29. or. Oargi Troskaeta Kultur Elkarteak.

1. Jentilbatza:

Lênao Jentillbâtzan jentilek bizi izete'ementzien. Askotan gauez Agerrea jetxi oi ementzien t'an jokûn aitze'ementzien eunsentiñ ollârrak kukurruku jo artên. Beiñ Agerreko nausie gaizkittu eiñ ementzan, da Elizakôk eitea ementzijiôn. Au jentillek jakintzoenên, kristauek ez izen âtio, urrezko sobrekamea Agerrea jetxi ementzoên, da bearekiñ gaixôn oia, Elizakôk jûteako, jantzi ementzoên. Agerrekôk jentillen sobrekamên gure izen nunbait ê, ta ala iltzez oiâri josi ementzioên, da baitta geroxaâgôn, kukurruku joâziñ ê. Jentillek ollârkantue aittu zoenên, eldu ên sobrekamêri ta berealdîko errûn abittu ementzien; baño sobrekamapuskâk oiân ertzâri jositta bertan geatu emen zitzaiên. Urdûn jentillek deadar eiñ ementzoên Agerre Agerre zan bitârtên etzala etxe artan erik eo makik paltako. T'arrezkeo erie eo makie beti ize emen da Agerren⁵.

Ez darama kontatzailearen izenik ez datarik. Baina Joxemartinek [Joxemartin Apalategik] bere tesiaren I. tomoan zera dio, hasteko, J. M. Barandiaranek bere ama Maria Antonia Aierberi entzun ziola, haurtzaroan, kontu hau. Eta 1921eko *Eusko-Folklore*-ren 7. zenbakian argitaratu zuela Gasteizen⁶.

Bestalde, jada aipatua dugun, *Nondik?* aldizkariaren 13. zenbakian beste aipamen hau ere egiten du: «Joxemiel Barandiaran jaio zela aurten 125. urteurrena denez, ATAUNIKER Elkarteak ORKLI, Gipuzkoako Parketxe Sarea, Lurra (Marron) eta udalaren laguntzaz, bere lehen ikerketa egin zuen lekura —JENTILBARATZA gaztelura— ibilaldi gidatua antolatu genduen. 1916ko udan aurkitu zituen Jentilbaratzan Nafarroako gaztelu izandakoaren aztarnak; ez ordea, jentilen inolako aztarrenik. Inguruko ei egun horretan esan zenez, jentilak ehortzita dauden lekuak Aralarren zeudela eta haraxe abiatu zela biharamunean»⁷.

2. Muskiko Jentila:

Muskîko koban bizi zan jentill batek kristau bat beiñ arrapau ementzôn. Eta kobati aldeîñ etzezan arrigarrizko eaztun bat eskuko beatz batên sartu ementzion, «emen nagô, emen nagô» deadarka beti eotentzana. Beingoatên kristau oi, jentillek pillâtuta zeuzken ardi narru artên izkutau ementzan. Eaztunên otsa urruti xamarrên iruitzen nunbait jentilêri, eta kanpoti ote zan berean jarri ementzan. Zâldu atea, eta irteten da kobati. Bâitta bestêk, astindu gaineko narrupillea, ta sekulako lasterrâri emanda jesusbetên andi aldeîñ ementzon. Aitzen do jentillek eaztunên otsa, ta badijoa lasterka gaindi bêra bê atzeti. Kristauek bêla bê burûri eutsi ementzion urdûn. Baño alakoatên buruatzan zayo arriatekiñ moztu beatza eta bê eaztunekîñ Mikolâldeko ibaira boâ bear dôla. Ta baita eiñ ê gizonak. Geo jentille atzeti Mikolâldeañ itxi zanên, osiñeko eaztun-otsa aittu, ta bertâ, kristaue antzeolakôn, jauzi ta an ittota geatu ementzan⁸.

5. Barandiaran, J.M. (1973): *Obras completas*, II. tomoa, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 24. or.

6. Ikus Apalategi, J.M. (1988): I. tomoa, 152. or.

7. Honen lekuko ikus, Aranzadi, Barandiarán eta Eguren (1919): *Exploración de nueve dólmenes del Aralar guipuzcoano*, Donostia.

8. Ikus Barandiaran, J.M., *Obras completas*, II. tomoa, 27. or. Aiako Larbuko Josemari Auzmendik kontatu zion Don Joxemieli. 1910ean kontatu omen zion berriemaileak. Eta J. M. Barandiaranek 1921eko *Eusko-Folklore* aldizkariaren 8. zenbakian argitaratu zuen Gasteizen (ikus Joxemartin Apalategiren doktorego-tesia (1988), I. tomoa, 153. or.).

3. Jentilen akabarea:

Jentilek Leizaiko kobâten bizi ziela, izar eder bat odeietan agertu ementzan. Alako izarra ikusi zoenên, jentill orik erabat ikâtuta, mundûn ze gertau behar ote zôn ezin asmauik ementzeiltzen. Alakoatên, koba barrûn erdi itxututa zeôn jentil zâr bat ataka aurrea atâ, ta zâldu endaiêkin, ta odeietâ beida jarri ementzoên, ark izar ari zertzan antz emango ziola ta. Baita ikusi orduko deadar eiñ ementzôn, ze: «¡A nê umêk: Kixmie jayo dek, galdûk gaituk oaintxe. Bota nazazûya ni emendi gain bera!». Jentillek Jesukristôri Kixmie deitze ementzioên, Kixmik berriz tximue esan nai emendo. Beak esan bezala, mallôk bêra amillka bota ementzoen, t'ala jentill zârta ill ementzan. Geo kristiandadea mundûn zâltzen asi zenên, jentil danak sakabanau ta bêla galdu ementzien⁹.

J. M. Barandiaranek, lehenik, 1921eko *Eusko-Folklore* aldizkariaren 9. zenbakian argitaratu zuen Gasteizen. Are, ikus Joxemartinek *Antropologia Berria...* bere tesian, 155. orrialdean dakarrena, hots, Joxemiel Barandiaranek, 1983an, Ataun-Sanmartingo Oargi Troskaeta Kultur Elkarteak argitaratzen duen *Nondik?* aldizkariaren 13. zenbakian zera gehitu ziola: «Leizadiko jentillak eta Kixmi (Kristo)-ren jaiotza eta Olentzaro edo Kristoren iragarlea», alegia. Hona hitzez hitz, Don Joxemielek Ataunen, 1983ko urriaren 31n sinatuta *Nondik?* aldizkariaren 13. zenbakian argitaratu zuena:

Leizadiko jentilak ikusi omen zuten laino argitsu bat (beste batzuek diotenez, **izarra** omen zen). Ikaratuta agerketa honekin eta galdetu omen zioten beren arteko zahar bati ea laono bitxi harek zer adierazten zuen. Jentil zaharrak, lainoa ikustean, esan omen zien: «jaio dek **Kixmi** (Kristo); gureak egin dik; ez diat bizi nahi gehiagoeta ni amildu nazazute hor mailotik behera». Jentil zaharra amilka bota omen zuten eta gaineatikoak berriz sakabanatuta: batzuek Leizadi-ko harpean barrura; beste batzuek (Balenkaleku-koak) ondoko trikuharrira; besteak Aralar-Arraztarango jentiharrira, e.a. Besten bat ordea inguruko ibar eta sakanetara jeitsi zen gertaera hau adieraztera: **hura zen lurralde hauentzat Lehenengo Olentzaro edo Kristoren iragarlea**. Hara hor Ataungo jentilei buruz herri hontan bildu ditugun esaera batzuek. Badira hemengo Mairu, Basajaun, Torto eta beste ireluezaz ere esaera ugari. Hauen berriak ordea beste aldi batean argitaratzeko uzten ditugu.

Harrigarria da benetan Don Joxemielen portaera hau! 1917an, lehen aldiz, Aiako Larburuko Josemari Auzmendik «Kixmi»ren aipamena egin ziola idatzi zuenetik, orain 1983an hainbat urte geroago hura osatu nahi balu bezala «Olentzaro» gehitzen dio orduko kontaera hari. Gure galdera zera da: Zer da Josemari Auzmendirena eta zer Don Joxemielen? Ataungo herrian zegoen aipamen hau? Ala/eta Don Joxemielek ekarria da kontaerara?

Ia-ia antzeko deskribapena egiten dio Oiartzungo Juan Maria Portuk Manuel Lekuona jaunari 1920an. Baina azpimarra ditzagun azken horren bertsioan dauden berezitasun nagusiak: a) *Azkeneko Mairûk* deitzen da kontakizuna; b) eta «Attona zarrak lainua kusi-ta, gaztiak, esan «ementzun gure denbora jon duk: Jesus mundura jayo duk eta gu galdûk gattuk». Ori san-ta denak kuzkur-kuzkur zolûn sartu ta, akabo, ez mentzin geyo sekulan atea». Ez dago, noski, Kixmiren eta Olentzaroren arrastorik.

9. Ikus Barandiaran, J.M., *Obras completas*, II. tomoa, 29. or. Aiako Larburuko Josemari Auzmendik kontatu zion Don Joxemieli, 1917an.

Eta J. M. Barandiaranek berak ere argitaratu zuen Zaldibian antz-antzeko deskribapena egin ziotela, 1917an. Deigarria da kasu honetan, berehala 1919an jada, Aralar mendira joanik, bi ganbara dituen Arraztaraneko dolmena dagoen harrikari multzoa industera abiatu zirela Aranzadi, Barandiaran eta Eguren. Ikus horren berri jada aipatua dugun «Exploración de nueve dólmenes del Aralar guipuzcoano» artikuluan. Eta bederatzi dolmen horietariko bat da hemen orain aipaturikoa.

Baina, Ataunen bada gizaki berrien abileziaz eta asmamenez «Jentilak» garaitu zituztela agertzen duen kontakizunik ere, eta horren kontalariak «artzaiak diren hominidoen» jokabidea (kristauak dira, noski) errebindikatzen du. Borroka sozialen abiatzea litzateke, alegia. Eta beste behin ere Leizain kokatzen da, noski.

4. Neuk neuri:

Beñ Leizaiko txabolâtên artzai bat bizi ementzan. Eunero-eunero, gatzure prantau garaiako, goiko kobatik jentilgazteat jexte emen zitzaion, ta arrizko ipurtaulkiatên esei ta gatzur dana eate ementzion. Alakoatên artzai orrek, ze gertatzen zitzaion bê laun bati kontaktu ementzion, da onek esa'ementzion ze urrugo eunên jentille zetorren garaiako ipurtaulkie sutan gorrittuta jarri zezala. Ala bâ urrungo eunên, launek esandakoa eiñ ementzôn. Sutati ipurtaulkie atâ zôn bezin laxter, sartzen da txabolan jentille; baitta be aren gañen esei ê. Baño esei zaneko deadarka jei ementzan. Bai, urdûntxe ango aldik sekulako azkarrena eiñik izen behar zittûn. Alako deadarretâ bê guasók kobati irten da galdezka ekiñ ementzioen. «—Ziñek ein dik, ziñek eiñ dik». «—Neuk neuri, neuk neuri». «—Orrek on eintzök or dañ artxaitxo orri» esan da beste bae utzi ementzoên¹⁰.

Erreparatzen badiogu, laster jabetuko gara, aipatu azken hiru kontakizunak Jose Maria Auzmendik kontatu zizkiola J. M. Barandiarani 1910etik 1919ra artekoan.

Nor zen kontalari hori? Ataungo Aiako Larburu etxeko jauna, noski. Lau kontakizunek berdintasun puntu bat daukate: denetan jentilak «gaiztoak» direla, alegia. Zergatik? Kristauak ez direlako, nagusiki. Lau kontakizunetan ere, jentilek kristauekin beti borrokan amaitzen dute, eta beti galtzaile ateratzen dira. Eta lau kontakizunetan, jentilak beti kobazuloetan bizi dira.

Oharra: Ataunen, garai hartan, ahozko kontalari anitz zegoen. Gehienek antzeko kontakizuna agertzen zuten, baina aldaketatxo hainbatekin, noski. Nik neuk ahozkolari baten ahotik, umetan, zuzenean, behin eta berriz entzundako kontu zaharrak daukat bereziki gogoan. Informatzailea 1929an sortua zen Rufina Urbiztondo Urdangarin izan nuen. Baina, Ataun osoan daude kontalariak. Sanmartinen, Uazandiko Joaninazio Aierbe, Eleminixeko Ramon Arratibel, Sanmartin Anberriko Ramon Arratibel, eta Akotaineko Marijoxepa Munduate. Aia auzoan, berriz, Aiarre Josemarineko Josemari Agirre, Mendiurkiluko Zelestino Agirre eta Joamiel Agirre. Sangregorion, Joxemilez gain, Peunezaharreko bere ama Maria Antonia Aierbe, eta bere hiloba Maria Barandiaran. Baita ere Munduateko Felipe Apalategi, Tellazpiko Joan Arin eta Ezkaluneko Joxemartin Apalategi. Hergonen, Miel Joxe Saartekoa, eta auzo bereko Joxe Arratibel dauzkagu.

10. Barandiaran, J.M., *Obras completas*, II. tomoa, 32. or. Hau ere Aiako Larburuko Josemari Auzmendik kontatu zion Don Joxemieli, 1919an. J. M. Barandiaranek dio azken kontakizun hau, berbera, kontatu ziola 1920an D. Jose de Ariztimuñok.

Aipatu berri ditugun «Jentilei» buruzkoei gehituko diegu Mendiurkiluko Zelestino Agirrek Joxemartini 1981-5-9an kontatu zion «Muskiko bi koba, Basajaun, Tartalo eta Lauztierrekako bi gazte» deitua¹¹.

Galdera zenbait: Jentilak zer gizataldetatik zetozen? Zer leinutakoak ziren? Gaur zientziek dioskutenagatik, Marokon duela 300.000 urteko buru-hezur bat kontrolatuta daukate. Etiopian, berriz, duela 200.000 urteko *Homo sapiens* batena aurkitua dute. Hala ere, dakiguna da, luzez inguru hartan bakarrik bizi izan zirela *Homo sapiens* direlakoak. Israelen ere azpimarragarri den 50.000 urteko buru-hezurra dago (Neanderthalgo gizaki bat eta *Homo sapiens* bat gurutzatu zirela erakusten duen buru-hezurra baita). Ataungoak zer leinutakoak ziren?

Kontu zaharretan aipatzen diren «jentillak», neanderthalak al dira?¹² Ala *Homo sapiens*ak dira? Hori guztia jakiteak bere garrantzia du ari garen gaian.

Azken horiek 70.000 eta 30.000 urteen artean «pentsatzeko eta komunikatzeko modu berriekin datozkigu», hots, iraultza kognitibo baten eragile dira, berriki Yuval Noah Harari-k *Sapiens* liburuan idatzi duenez. Zerk kausatu zuen hori? Ez dago ziurtasunik. Teoria zabalduenaren arabera, *sapiensen* burumuinaren barren «kableatua» aldatu zen mutazio genetiko akzidentalaren eraginez. Bestalde, kontuan izan dezagun 40.000 urte Kristoren aitzinetik ailegatuak zirela hominido horiek Euskal Herrira.

Bestalde, hominidoen hizkuntza bere osagaiengatik bakarra da Izadi osoan. Zergatik den horrela? Bigarren teoriabaten arabera, gure mintzairak munduari buruzko informazioak partekatzeko bitartekari bezala bide egin zuen. Baina helarazteko ageri zen informaziorik garrantzitsuena hominidoei zegokiena zen, noski, ez batere lehoiei eta bisonteei buruzkoak. Gure mintzairak solastatzeko moduetan bide egina du bereziki. Teoria honi jarraikiz, *Homo sapiens* esentzialki animalia soziala baita —esaldi horrek Aristotelesek *Politika* obran dioenera garamatza zuzenean, hots, hominidoa «*zōon politikón* = 'animalia zibikoa'» dela, eta naturalezaz *physei* dela, eta autarkiko bakarra izateaz gain, sendia eta gizabanakoa berbera baino aitzinagokoa dela—. Ondorioz, adieraz dezagun kooperazio soziala dela gure bizi-iraupenaren eta erreprodukzioaren giltzarria... Itxura guztien arabera, nola esamesen teoria hala erreka-ertzeko lehoiaren teoria, nola bata hala bestea biak direla baliokoak. Baina gure hizkuntzaren izaera bene-benetan bakarra izanik, ez dela hominidoez eta lehoiez aritzeko balio duen bakarra izatearena, aitzitik baliokoa dela ere existitzen ez direnez jarduteko. Guk dakigunagatik, esan genezake *sapiens*ak bakarrak direla sekula ikusi, hunkitu eta sentitu gabeko izakiez hitz egiteko kapaz. Ipuinak, mitoak, jainkoak eta erlijioak, den-denak, iraultza kognitiboaren emaitzak baitira. Lehenagotik, animalia anitzek eta hominidoen espezie anitzek esan zezaketen: «Kasu! lehoi bat!». Baina iraultza kognitiboari esker, *Homo sapiens*ak ahalmen berri bat lortu du, hots, «lehoia gure tribuaren izpiritu zaindaria bilakatzea». Alegien bidez

11. Ikus Joxemartin Apalategiren tesia (1988) II. tomoa, 31.-37. orrialdeetan.

12. Kontuan izan dezagun, 460.000 urte Kristo baino lehenagotik existituz, gaur egun dakiguna da, 300.000 urteetatik zeudela Akitanian. Ikus Dominique et François Millet, «Les industries de l'Acheuléen évolué...», in Vincent Mistrot, (2010), *De Néandertal à l'homme moderne*, Ed. Confluences, Bordeaux, 23.-29. or.

mintzatzeko ahalmen hau baita *sapiens*aren hizkuntzazko trazurik bakunena... Argi eta garbi gera dadila, bada, gauzak irudikatze ahalak ekarri dizkigula alegiak, hark baimentzen digula alegien bidez mintzatzea. Hori dela eta, asmatzen eta konposatzen ahal ditugu kreazio biblikoaren kondaira, amets garaietako mitoa, edo Estatu modernoan jatorriari buruzko mito nazionalak, besteak beste...¹³.

Giza eta gizarte-zientzietatik ere beste ikuspegi bat gehitu nahi nioke nire gogoetari: ikerlariok ezin dugu gure ikerketen fidagarritasuna ziurtatu, hiru osagai konbinatuz ez bada: emaitzak, frogak eta teoriak konbinatuz, alegia. Ezinbesteko eginkizuna dugu azken hori, nahiz zaila gertatu anitzetan¹⁴.

3. Eta Euskal Herrian zer dakigu hominido hauetaz?

Lezetxikin (Arrasate) duela 164.000 urteko Neanderthalgo gizaki baten hezurra aurkitu zuten J. M. Barandiaranek eta Jesus Altunak (1965ean). Bestalde Ekainen (Zestoan), duela 14.000 urteko *Homo sapiens*-ek 59 animalia (erdiak inguru zaldikiak) marrazkituta utzi zizkigutela argitu zaigu¹⁵.

Iparraldean, besteak beste, Isturitze eta Otsozelaiko harpeak dauzkagu. Labar-pinturaz apainduriko harpe hauek, 1953az gero, Monumentu Historikotzat sailkatuak dituzte Frantziako botere publikoek, Piriniar-Kantauriar mendilerroko harpe apainduen sarean, 80.000 urtez hominidoek okupatuta egon direla ziurtaturik. Donamartiriko Gaztelu mendixkapean, kuriostasun naturala eta zehaztasun harrigarriak eskaintzen dituzte, noski. Pirinio Prehistorikoaren sarean ezinbesteko bilakaturik, Europar Kulturako ibilbidetzat izendatuak izan dira, Euskal Herriko Gune Natural eta Historikoen eta Museoen sarean eta ANECAT-Grottes de France elkartean sarturik (Joëlle Darricau dugu oraingo propietario-gordetzalea). Duela 35.000-30.000 urteko (Aurignac kultura arkaikoaren garaikoak) animalia helduen hortz-haginak (abelgorri, azeri eta elur-oreinenak) zuztarrean bifazialki zulatuak aurkitzean, ospea handitzea lortua dute Isturitzeko Harpeek¹⁶.

13. Ikus Harari, Yuval Noah (2015), *Sapiens*, 34.-36. orrialdeetan.

14. Ikus, gai honetaz, Howard S. Becker, *Faire Preuve, Des faits aux théories*, Ed. La Découverte, Paris, 2020.

15. «Zestoa eta Debako lurretan dago Ekaingo haitzuloa. Goi Paleolitoko leize hau ezaguna da batez ere Madeleine aldiko labar-pinturak direla-eta, eta bereziki zaldien irudiengatik. Azpitiko Antxieta kultur taldeko Rafael Rezabalek eta Andoni Albizurik aurkitu zuten kobazuloa, 1969an, eta J.M. Barandiaranek eta Jesus Altunak egin zituzten indusketa lanak. UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zituen kobak, 2008. urtean, Santimamiñe eta Altxerri haitzuloekin batera» (<https://www.urolaturismo.net/eu/kultura-eta-ondarea/arkeologia/180-ekain> webgunetik hartua). «Iruki kopurua 70 ingurukoa da, horietatik 59k animaliak argi eta garbi irudikatzen dituzte eta gainerakoak interpretazio zaileko zeinu edo irudiak dira. Irudiez gain, inprimatutako hatz markak ere aurkitu dituzte kobazuloko sektore batzuetan. Ikuspegi kuantitatibo batetik, irudikapenen erdiak baino gehiago zaldiei dagozkie. Horien atzetik bisontek eta ahuntzak datoz, eta irudikatutako beste animalia batzuk dira oreinak, hartzak, arrainak, eta, seguru aski, errinozeroak. Iruki gehienak margotuta daude eta beltzaren monokromia da nagusi, nahiz eta gorritz egindako irudikapenak eta bikromoak ere badauden. Era berean, grabatutako figurak (6) eta teknika mistoko beste batzuk agertzen dira» (<http://www.arterupestrecantabrico.es/eu/cuevas/cueva-de-ekain.html> webgunetik hartua).

16. Ikus Vincent Mistro koordinatzaile duen (2010) *De Néandertal à l'homme moderne*, Ed. Confluences, Bordeaux, 80. orrialdean eta 94.-106. orrialdeen artean.

Eta euskara? Magdalenien setik datorrela argi dago jakitunentzat (duela 15.000-9.000 urteren artean abiatutakoa dela, alegia).

Gehitu dezagun Neolitoa duela 4.500 urte abiatu zela, hots, nekazaritzaren agerpenarekin. Eta Megalitoa duela 3.000 urte abiatu zela, hots, metalen tratamenduen hasierarekin, alegia. Hala ere, gure eztabaidarako aipagarriak dira Neanderthalgo gizaki eta *Homo sapiens* gizatalde edo leinukideen artean dauden diferentziak, bereziki. Ataunen, eta kontakizun aipatu horien arabera, jentilak beti kristauekin daude borrokan. «Jentilen akabarea» kontakizuna azpimarragarria da beste guztien gainetik.

Oharra: Jainko bakarra erreklamatzeko duen lehen erlijioa (monoteista, alegia), Egipton (Alexandria) Akhenaton (Amenhotep IV) + Nefertiti bikotearen erreinuan (Kristo aurreko 1340. urtean) sortzen da. Jainko bakar hori Aton deituko dute. Gero helduko dira Jainko Bakarrek erlijio diren judaismoa, kristautasuna eta islamismoa...

4. Ondorioak

1. Kolektibo humanoaren irudikapen (imajinario) mugagabea funtsezko kontzeptua da hominidoen mundua ulertzeko.
2. Mitoak, kontu zaharrak, kontu berriak, erlijioak, arteak —XX. mendean bederatzia arte mota bereizi ziren: arkitektura, dantza, eskultura, musika, pintura, literatura, zinema, argazkigintza eta komikia, eta gaur egun (2018tik) diseinua, publizitatea, moda edo gastronomia ere adierazpen artistikotzat jo daitezke—, eta ez da horretan agortzen, zeren teknologia berrien emaitza ugariak ere barne eman beharko lirateke.
3. Ulertzeko bitartekoak: ahozkotasuna, literatura, irudiak, eskulturak, teknologia berrien asmamen digitalak eta beste.
4. Giza eta gizarte-jakintzen moldaketak.

Hau guztia gurutzatuz ulertzeko, Joxemartin Apalategi Begiristainen *Antropologia Berria. Ahozko Herri Produkzioa. Ataungo Herria, auzoak, pertsonalaldeak eta pertsonak* doktorego-tesia gomendatzen dut. Ahozkotasun-produktuen deskribapenetan kontalariak eta jakintzagileak daukaten paper garrantzitsua eta desbideratzeko dauden arriskuak ere seinatu behar dira. «*Etnografari* izan behar, lehenik» esanez irekitzen du gogoeta-atal hau:

Ohartu naiz etnografariak hiru bide erabiltzen dituztela beren berriak jasotzeko: ahozkoa, materialezkoa edo plastikazkoa eta idatzia [...] gaurko etnografaria, sarri-sarritan, nahi eta ez, geroz eta gehiago bere lekuan lekuko ikerlanetan beste pertsona zientzietako berrijasotzailekin elkartzen da, hala nola, soziologoekin, psikologoekin, historiagileekin, eta horregatik bakarrik bada ere etnografariak bere metodoa zorrotzagoa bilakatzeari jo behar dio [...]. Etnografia bukatutakoan, eta ez lehenago!, etnologoak bere azterketarako, beste bide batzuren artean, galdeketa erabiliko du. Nire ikerlanean hori metodologizko puntu haundienetarikoa bat da. Beraren erabiltzeaz beraren premia gure arterako azpimarkatu nahi izan dut...¹⁷.

17. Ikus Joxemartin Apalategiaren tesia (1988) I. tomoa, 29.-31. orrialdeak.

Eta gogoeta amaitzeko, beste hau dio:

... Antropologiako ezagupen orokorraren giltzarria etnologia edo antropologia barnekoa da, lehenengo eta behin. Datorrenge beste pausoa, antropologia konparatzailea. Honetaraino iristeko, konparatuko diren bi zatietako baten egile lehenik izan behar du edonor antropologok. Bestela, ez dago konparaketa lana, inposaketa lana baizik¹⁸.

Hortik gordetzeko «antropologia kulturalaren baldintzak» aipatzen dizkigu jarraian, berak lehenago idatzitako gaztelaniazko testu bat euskarazko tesi barruan txertatuz:

El informante oral y su información etnográfica debe ser considerado como otro producto oral popular y, como tal, estudiado por la ciencia antropológica [...]. Esta forma de oralidad no ha sido casi nunca objeto de estudio, lo que hace que a los propios antropólogos esto nos parezca algo raro. Pero ya va siendo hora de que los antropólogos culturales abordemos con igual criterio de sistematización todos los tipos de oralidad popular y que proclamemos a esta como uno de los dominios de estudio más genuinos de la antropología cultural histórica como actual y, a la vez, como uno de los fenómenos más originales de las personas en convivencia social. Los antropólogos culturales tienen mucho que hablar sobre el informante e información orales, y su estudio no ha constituido todavía parte integrante del análisis de una comunidad¹⁹.

Are beste zehaztasun batzuk eta gehigarriak datoz ondoren; ikus 49-51 (1/IV) orrialdeetan zer dioen:

1.a: Herri baten hizkuntza zergatik da garrantzitsua? Zergatik antropologiarentzat? Zientzia honek hizkuntza kulturazko aztergai nagusienetakotzat jotzen du. Hori, ordea, ez da nahiko! Horretara mugatua gelditzen den zientziak aztergaiaren barne osoa oraindik ez du antzeman. Antropologia historikoak, nonahikoak, hori ez du lortu, ia sekulan [...]. Hizkuntza kulturaren elementu oinarriko dela aitortu eta defendatu egin behar dute antropologoek antropologia beraren ikuspuntutik [...]

2.a: Gainera, beren hizkuntza propioa dominatua daukaten herritarrei horren kontzientzia hartzen eta horren kontrako bideak egiten eta erabiltzen irakatsi behar die antropologo batek. Kultura ezagutzea ez da aski! Pertsona ezagupen mota guztiak ezaugarri hauez ornitua daude: oharrarazle, asmarazle eta egiazle. Hirurak pertsona ezagupen baten buruketan beti eman behar dira ezagupen prozesua zuzena izango bada.

Hizkuntzari, ordea, zergatik ematen diogu hainbatekotasun hori antropologoaren ikuspegitik? Hizkuntza, gorago aipatu bezala, ahozko herri produkto mota bat da. Baina ez nolana hiko! [...]

Mitorik, kontuzaharrik, kontuberririk eta beste ahozko herri produktorik lehenago eta sorrerazle bezala hizkuntzarik ematen ez bada ezin dira eman [...]

Oraindik, halere, puntu honen barnean beste ezaugarri haundi bat behar da aipatu. Ahozko herri produkzioaren azkenengo elementua hauxe besterik ez da: historia. Iadanik agertu dut historia berria dela. Herri batek, pertsonalde batek, pertsona batek bere izakera, beti bikoitza, hau da biologiazkoa eta kulturazkoa,

18. Ikus Joxemartin Apalategiren tesia (1988) I. tomoa, 32. orrialdea.

19. Ikus Joxemartin Apalategiren tesia (1988) I. tomoa, 46.-47. orrialdeak.

bakarrik historia konkretu baten baitan burutzen du. Braudel historilariaren aipamen batek hau argitzen lagunduko dit (ikus Braudel, 1982: 19-20)²⁰.

Orobat, ikus Joxemartinek bere tesiko I. tomoan, *Sarrera* gisa handizki idazten dituen ohar batzuk: 29. orrialdean hasi eta 36ra artekoak. Baita «arazo modura agertzen duena» ere, 55-56 orrialdeetan. Eta amaieran dauden proposamenak: «Ahozko herri produkzioaren bidez ikusita ataundarren izakera», 217-223 orrialdeetan.

Bibliografia

- Apalategi Begiristain, Joxemartin (1987): *Introducción a la historia oral a través de los kontzaharrak (cuentos viejos) de la comunidad gipuzkoana de Ataun*, Ed. Anthropos, Bartzelona.
- , (1988): *Antropologia Berria. Ahozko Herri Produkzioa. Ataungo Herria, auzoak, pertsonaldeak eta pertsonak* [Doktorego-tesia], 4 Tomo, Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalaren Kultur Ekintza, Donostia.
- Arin Dorronsoro, Juan (1964): *Monografía del clero y religiosos de Ataun: con una breve historia de sus tres parroquias*, Imp. Lib. y Enc. del Montepío Diocesano, Vitoria-Gasteiz.
- Bachelard, Gaston (2013): *Le Nouvel Esprit scientifique*, Ed. PUF, Paris.
- , (2000): *La Formation de l'esprit scientifique. Contribution à une psychanalyse de la connaissance objective*, Ed. Vrin, Paris.
- , (1985): *La Psychanalyse du feu*, Ed. Folio, Paris.
- , (2012): *La Philosophie du non: essai d'une philosophie du nouvel esprit scientifique*, PUF, Paris.
- , (1993): *L'Eau et les rêves: essai sur l'imagination de la matière*, Le Livre de poche, Paris.
- , (1992): *L'Air et les songes: essai sur l'imagination du mouvement*, Le Livre de poche, Paris.
- Barandiaran, J.M. (1934a): *Euskalherri'ko leen-gizona (Eusko-lurretan lenengo izan ziran gizonen edesti laburra)*, Arg. Beñat Idaztiak, Donostia.
- , (1934b): *El hombre primitivo en el País Vasco*, Ed. Beñat Idaztiak, Donostia.
- , (1972-83): *Obras completas* [22 tomo], Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Braudel, Fernand (1982): *La historia y las ciencias sociales*, Alianza Editorial, Madril.
- Caro Baroja, Julio (1949): *Los vascos*, Biblioteca Vascongada de Amigos del País, Donostia.
- Dumezil, Georges (1995 [1968]): *Mythe et épopée*, [Préface de Joël H. Grisward], Collection Quarto, Gallimard, Paris.
- Harari, Yuval Noah (2015): *Sapiens. Une brève histoire de l'humanité*, Ed. Albin Michel, Paris.
- Itzaina, Xabier (2007): *Les virtuoses de l'identité*, Ed. Presses Universitaires de Rennes, Rennes.
- Lévi-Straus, Claude (1971 [1964]): *Mythologiques*, Ed. Plon, Paris.
- Laplace, Georges (1966): *Recherches sur l'origine et l'évolution des complexes leptolithiques*, Ed. E. de Boccard, Erroma.
- Mistro, Vincent (koordinatzailea) (2010): *De Néandertal l'homme moderne*, Ed. Confluences, Bordele.
- Peillen, Txomin (2019): *El imaginario en las creencias populares y cultas*, Dakit argitaldaria, Zarautz.

20. Ikus Joxemartin Apalategiren tesia (1988) I. tomoa, 49-52 orrialdeak.

- Plutniak, Sébastien (2017): «L'innovation méthodologique, entre bifurcation personnelle et formation des disciplines: les entrées en archéologie de Georges Laplace et de Jean-Claude Gardin», *Revue d'histoire des sciences humaines*, 31. bol., 113-139.
- Saint-Perier de, R. et S. (1952): *La grotte d'Isturitz III. Les solutréens, Les Aurignaciens et les Moustériens*, Archives de l'Institut de Paléontologie Humaine, Ed. Masson, Paris.
- Urkiza Txakartegi, Julen (1995): *Elizaren Historia Euskal Herrian*, Karmel, Markina.

